

KUL TUR

2018

***ekainak 22 /
irailak 8***





ekainak 22 / irailak 8

KULTUR

2018

Orain dela 23 urtetik hona, **KULTUR**rek udaz gozatzeko aukera ematen du Nafarroan, herritik atera behar izan gabe. Urte horietan zehar, programa handitu eta garatu egin da eta, gaur egun, **udako sasoiaren aisialdi- eta kultura-proposamen garrantzitsuena bilakatu da Nafarroan.**


Nafarroako Gobernuo Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak antolatzen du eta Nafarroa osoan barna hedatzen den zirkuitu musikal bat eskaintzen du, herritarrek kalitatezko musika-proposamenak ikusteko eta entzuteko aukera izan dezaten gure lurraldeko musika-tradizio nabarmena han bilduta.

KULTURrek kultura-jardueraren deszentralizazioa sustatzen du, Iruñetik kanpora eramanda; **eta gure Komunitateko musika-taldeei beren lana beste udalerri batzuetan erakusteko aukera eman die.** Hala, musika-formatu askotarikoak biltzen ditu, bai tradizionalak, bai garaikideak. Baina **KULTUR**ren programazioak, musika-proposamenez gain, dantza eta arte plastikoak ere hartzen ditu barne.

2018an, **jarduera-programa ostegun, ostiral eta larunbatetan garatzen da, ekainaren 22tik irailaren 8ra bitarte, 36 herri eta intereseko lekutan.** Horretan, **musika-, dantza- eta arte-arloetako programazio** zabala eta ugaria eskaintzen da. Gainera, larunbatetan, turismoaren arloko proposamen batekin osatuko da kultura-proposamena.

Uztailaren 20tik abuztuaren 20ra, Javier Ciga margolari nafarraren obraren erakusketa bat egonen da **Bertizko Jaureerrian.**

KULTUR egiten dugun lagunon nahia da aurtengo **KULTUR**reko edizioa disfrutatzeko modukoa izatea, baita ahazteko zaila izatea ere. Horixe baita **KULTUR**, Mendialdeko, Erriberako eta Erdialdeko herrietako plazez eta karrikez gozatzeko ekimen bat.



Jirafa edertasunaren enblema da, eta Nafarroako paisaia azaleratzen da, programa honek biltzen duen talentu artistikoaren alegoria gisa.

ekainak 22 / irailak 8 KULTUR

2018

ekaina

22^{og} Eñaut Elorrieta

TAFALLA
CENTRO CULTURAL
TAFALLA KULTURGUNEA (*)
20:30

23^{or} Coral Aritza de Aibar

ORREAGA /
RONCESVALLES
KOLEGIATAKO ELIZA
19:00

ekaina

28^{og} Coro Góspel Alaikapela Abesbatza

UXUE
UDAL PLAZA
20:00

29^{or} Kirolak. Helena Lizari eta Laida Aldaz

GARES
MENA PLAZA
20:00

30^{lr} Erakutsi bide diren dantzak Larratz Dantzari Taldea

LODOSA
KULTURA ETXEA
19:00



LARUNBATETAN.
JARDUERA
TURISTIKOAK

(*) TAFALLA
Prezioa 8€
Sarrerren salmenta:
patronbase.com/_/
Tafalla/Productions/

(**) ZUGARRAMURDI
Leizera sartzeko
prezioa 4,50€

uztaila

5^{og} Trío Palatino, Valdi eta Marcela

DONAMARIA
JAUREGIA DORRETXEA
22:00

6^{or} Zorongo

FALTZES
FORUEN PLAZA
22:00

7^{lr} Esencia Jazz

ERRONKARI
PLAZA
20:00

uztaila

12^{og} Diabulus in Musica

ARGUEDAS
SAN MIGEL PLAZA
20:00

13^{or} IDDWAC

ARBIZU
OLAZTEA TERRAZA
21:00

14^{lr} Coral Erkudengo Ama Abesbatza Altsasukoa

IRANTZUKO
MONASTERIOA
ELIZA
12:00

uztaila

19^{og} Christina Rosenvige

SAN ADRIÁN
FRUCTUOSO MUERZA PLAZA
22:00

20^{or} Gozategi

ETXARRI ARANATZ
PLAZA
20:30

21^{lr} Boîte à musique Marco Bellizzi

LEKUNBERRI
PLAZA
20:00

uztaila

26^{og} Bruna Sonora

CORELLA
FORUEN PLAZA
21:30

27^{or} La otra & Las locas del Co.

ESTELLA / LIZARRA
LOS LLANOS
KULTURAGUNEO
LORATEGIAK
21:00

28^{lr} Ardanfusión

LOS ARCOS
PLAZA
21:00

abuztua

2^{og}
Strombers

RIBAFORADA
CABALLEROS
TEMPLARIOS KALEA
22:00

3^{or}
Fusioak
Aukeran Dantza
Konpainia

ELIZONDO
PLAZA
20:30

4^{lr} 🏰
Musikarren
koloreak

OTSAGABIA
PLAZA
22:00

abuztua

16^{og}
Rock
Classical Trío

IZABA
ANFITEATROA
20:30

17^{or}
Pachawa
Sound

ZANGOZA
ARCADAS PLAZA
23:00

18^{lr} 🏰
YSI
Kalima

FITERO
LAS MALVAS PLAZA
21:00

abuztua / iraila

30^{og}
Tximeleta

MENDIGORRIA
PLAZA
20:30

31^{or}
Suakai
on the Rocks

ARTAXOA
QUINTA PARKEA
20:00

1^{lr} 🏰
Smoking
Stones

ALTSASU / ALSASUA
FORUEN PLAZA
23:00

iraila

6^{og}
Mielotxin

AGOITZ
KULTURA ETXEA
21:00

7^{or}
Kepa Junkera
& Sorginak

LEITZA
PLAZA
20:00

8^{lr} 🏰
The
Claus

TUTERA
ALFONSO I
EL BATALLADOR PLAZA
20:30

abuztua

9^{og}
Random
Thinking

VIANA
SAN PEDROKO
HONDAKINAK
21:00

10^{or}
Ramón
García Septet
Proyecto Luces
del Norte

MARCILLA
GAZTELUA
21:00

11^{lr} 🏰
Tafallako
Tubala Uxo
abesbatza

LA OLIVAKO
MONASTERIOA
ELIZA
19:00

abuztua

23^{og}
Mara

ZUGARRAMURDI
SORGINEN LEIZEA (*)
18:00

24^{or}
Hego
Haizeak

ORBAIZETA
PILOTALEKUA
20:00

25^{lr} 🏰
Coro In
Tempore
Abesbatza

LEIREKO
MONASTERIOA
ELIZA
19:45

ERAKUSKETA



BERTIZKO
JAUREGIA

uztailak 20 /
abuztuak 20

J. CIGA

Figurazioa
eta esentzia

22 or

**Eñaut
Elorrieta****TAFALLA**

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA / 20:30

Prezioa: 8€

Eñaut Elorrieta musikari eta konposatzailearen kontzertu akustikoa. Haren zuzeneko emanaldiak oso zainduta egoten dira, eta beren barne-kartografiako bideetan barna bidaiatu eta ibiltzeko gonbita egiten diete entzuleei. Aldi berean, besteak beste, aberri eta erbeste kontzeptuak azaleratuko dira ikusleei iradokitako emozioen geografian, non deserriratzea bakardadea baita, biluztasuna; babesik gabeko sentimenduen narrazioa da.

Eta Eñautek ikuspegi horietatik guztietatik begiratzen dio erbesteari. Eta, horretarako, bere testuetatik abiatzen da, baina beste poeta eta idazle batzuen lumaren konplizitatea ere bilatu du. Horietako batzuek bertatik bertara bizitu dute erbestea (**Joseba Sarrionandia** edo **Joan Oliver**); beste batzuek, berriz, erbesteratze poetikoari buruz idatzi dute (**Mario Benedetti**, **Harkaitz Cano**, **Bernardo Atxaga**). Eñaut barru-barrukoa bezain soziala den gai horretaz jabetu da eta, hitzen eta musikaren bidez, bizitzeko moduko lur-zati bat zedarritu du.

Eñaut Elorrieta (Gernika, 1975) **Ken Zazpi** talde euskaldun sendoaren sortzaile eta abeslaria da. Talde horrek, besteak beste, honako lan hauek sortu ditu: *Atzo da bihar* (2001), *Argiak* (2007) eta *Phoenicoperus* (2015) azken diskoa.

Baina, 2013an, **Eñaut Elorrietaren** ibilbide artistikoan, bide berri bat ireki zen, bere lehen bakarkako lana, *Deserriko kantak*, argitaratu baitzuen Elkar diskoetxearekin. Ordutik hona, bakarlari gisa nahiz **Ken Zazpiko** abeslari gisa ibili da eta kontzertu bira garrantzitsua egin du zenbait areto eta antzeztokitan.

Kontzertu horretan, bere diskoko honako kanta hauek aditu ahal izanen dira, besteak beste: *Non dago nire herria*, *Geografia*, *Nire aitaren etxea*, *Azken balsa* eta *Deserriko kontradantza*.

23 Ir

Oibarko Aritza Abesbatza

ORREAGA / RONCESVALLES

KOLEGIATAKO ELIZA / 19:00

Aritza Abesbatza 1974an sortu zen eta 1989z gero jardunean aritu da etengabe. **Aritza Abesbatza**ren emanaldiak biderkatu egin dira azken urteotan, eta polifonia eta folklorea biltzen dituen askotariko errepertorio goresgarria osatu ahal izan du; mota guztietako gertaeretakoko programazioak ditu, hala nola udaberriko kontzertuetarako, Eguberrietarako eta Oibarko Erdi Aroko azoketarako. Gainera, herrian antolatzen diren beste kultura-ekitaldietan ere parte hartzen du, baita Behe Mendialdeko Elkartek (Xabierren Lurak Partzuergoa, gaur egun) antolatutakoetan ere. Halaber, Sahararen edo Kamerunen aldeko ongintzazko kontzertuak egin ditu, eta *A un paso* dokumentalerako zenbait kanta grabatu. Castelloko *Aplec Nadalenc x. jaialdian* hartu zuen parte, 2017an.

Fernando Otano Navarro (zuzendaria). Kantuko erdi mailako gradua ikasi zuen, Pablo Sarasate goi kontserbatorioan. Iruñeko katedraleko abesbatza eta Oibarko **Aritza Abesbatza**ren kidea izan zen eta beste abesbatza batzuekin ere kolaboratu du, hala nola Zangozako **Nora abesbatzarekin** eta **Sine Nomine** abesbatzarekin.



23 Ir

Bisita gidatua Orreagako multxora eta altxor-museora

ORREAGA / RONCESVALLES

16:30 / 1 ordu 30'

Priorearen etxearen leihatila

Prezioa: 6€

Erreserbak:

T. 948 79 04 80 / 670 28 99 97

auriaorreaga@gmail.com



ekaina KULTUR



30 Ir

**Bisita eta dastatzea
Perón kontserba-
industrian**

LODOSA

11:00 / 1 ordu
Perón kontserba-industria
Prezioa: dohainik

Erreserbak:

T. 948 69 45 02
c.peron@terra.com

*Aurrez eman behar da izena
ezinbestez*

28 og

Coro Góspel Alaikapela Abesbatza

UXUE

UDAL PLAZA / 20:00

15 urte baino gehiagoko ibilbidea duen abesbatza bat gara. Gure izena *Akapela* (a *capella*) eta *Alaitasuna* hitzen arteko konbinazioa da eta laguntasunaren, senidetasunaren eta musikarekiko eta, bereziki, kantuarekiko maitasunaren espiritua bildu nahi du. Errepertorio berritzailea aurkeztu nahi dugu, Gospelaz eta beltzen musika espiritualetz bakarrik osaturik, ikusleak harritu eta kutsatzeko, unea bizi dezaten.

Alaikapena nortasun eta ezagugarri propioak dituen musika-proiektu serio bat da eta Nafarroan Gospel hutsa kantatzen duen abesbatza bakarra.

Musika afroamerikarraren testuinguruan kokatu behar da Gospel; Estatu Batuetako kotoi-plantazioetan du jatorria, 1800. urtearen inguruan. Esklabo zeuden pertsona horiek kotoia biltzen zuten bitartean beren aieneak adierazten hasi zirenean sortu zen; beren mina bideratzeko modu bat zen; hala, berentzat libre zen espazio bakarraren gunera ailegatzen ahal ziren, non beren egoera emozionalak partekatzen ahal baitzituzten eta, aldi berean, nolabaiteko askatasuna sentitu.



29 or

Kirolak. Helena Lizarri eta Laida Aldaz

GARES

MENA PLAZA / 20:00

Kirolak, 8 euskal kiroleetan oinarritutako koreografia bat dat; kirol horiek landa-ingurune jardueretan dute jatorria, eta, dantza garaikidearen bidez, interpretazio berri bat ematen zaio euskal kulturari.

Helena Lizarri eta **Laida Aldaz** arteko elkarlana da. Zenbait urte daramatzagu atzerrian lanean, bidaiatzen eta bizitzen; dantzak eramaten gaituen lekuan lurra hartzen, eta, une honetan, gure sustraia ondora ekarri gaitu. Beharbada sustraia ez da lotura, abiapuntua baizik; beste herrialde batzuetan lan egin izanak beste kulturetara, beste jendearengana hurbildu gaitu, eta, horri esker, beste ikuspegi batetik begiratzen ahal diogu gure buruari. Zenbat aldiz galdetu diogu gure buruari nongoak garen? Zenbat aldiz deskribatu dugu gure sorterrira? Eta, aldiro, hura birdefinituz eta berraurkituz joaten gara. Urruti egoteak, batzuetan, hurbilen dugun hori ulertarazten digu; paradoxikoki, hobeki ikustarazten digu. Gure sorterrira itzuli gara haren gainean mintzatzeko, haren gainean dantzatzeko.



30 hr

Erakutsi bide diren dantzak Larratz Dantzari Taldea

LODOSA

KULTURA ETXEA / 19:00

Gure ikuskizunean, folklore tradizionalan oinarrituko dantza-sorta bat aurkezten dugu museo bateko margolan-erakusketa bat balitz bezala. Museoko gidariak ikusten dituzten objektuak eta margolanak azaltzen dizkie bisitariei. Pertsona horien artean, aitatxi bat eta haren bilobak ditugu. Aitatxi horren kontakizunaren bitartez, haurrek ikusten dute margolanak ireki egiten direla barruan gordetako historiari bidea ematen dioten atear balira bezala.

Erretratututako pertsonak bizi-dun bihurtzen dira dantza ikusteko beste modu bat erakusteko, folklorea interpretatzeko beste modu bat. Margolari batek errealitatea bere ikusmoldetik interpretatzen du; kolorea bere ikuspegitik hautematen duen bezala inprimatzen du; bere irudimenaren arabera irudikatzen ditu objektuak; hala, margolan bakoitzak dantza bakoitzari buruzko ikuspegi bat adieraziko du: eraldaketa bat, berrasmatze bat, folklorearen sortze-lan bat, *margolariaren* ikuspegi subjektiboak bakarrik irudikatzen ahal duena.

Dantzariak eta musikariak jarriko diete kolorea dantza bihurtu behar duten irudi horiei; figura estatikoei bizia emanen diete, paisaia mutuei musika jarriko diete, hala margolan bakoitza folklore tradizionalaren eta garaikidearen arteko nahasketa bizi eta koloretsua izan dadin.

5^{og}

Trío Palatino, Valdi eta Marcela

DONAMARIA

JAUREGIA DORRETXE / 20:00

Roberto Casadok (txirula), **Carlos Secok** (biola) eta **Sergio Larrión** (gitarra) osatzen dute **Trío Palatino**; hiru musikari horiek prestakuntza handia dute eta esperientzia zabala ganbera-musikan; horri esker, banakako nahiz taldekako ganbera-kontzertuak eman dituzte zenbait herrialdetan, hala nola Espainian, Andorran, Italian, Frantzian, Ingalaterran, Polonian, Hungarian, Taiwanen, Australian, Kanadan, Marokon eta Estatu Batuetan.

Errepertorio zabala dute, askotariko estiloekin. Italiar eta Europar Erdialdeko klasizismoak utzitako ia obra guztiak biltzen ditu eta horrek erakusten du, batetik, talde horrek musika garaikidearekiko duen interes handia, eta, bestetik, egile klasiko eta herrikoien obra moldatuak ganbera-errepertorioan sartzeko gogo. Oraingoan, **Valdi eta Marcela** dantzari-bikotearekin batera hartuko dute parte, Tangoan eta Argentinako folklorean espezializatutako dantzariak.

6^{or}

Zorongo

FALTZES

FORUEN PLAZA / 22:00

Flamenkoa beste musika batzuekin uztartuta. **Zorongo**ren flamenkoak ez du mugarik ezagutzen. Bere konposizioetan, **Zorongo** gure garaiko eklektizismoa harmonizatzen du, soinu oso pertsonalaren bidez, mota askotako publikoarengana ailegatzeko.

1999. urteaz gero ari dira lanean; eta lau disko grabatu dituzte, betiere sormen-espazio bat bilatzen tradizioaren eta berrikuntzaren artean, herrikoiairen eta unibertsalaren artean.



7 Ir

Esencia Jazz

ERRONKARI

PLAZA / 20:00

Esencia Jazz Nafarroako musika-talde bat da. **Jose Luis Montañés** (baxu elektrikoa) kanariarrak sortu zuen taldea 2009an eta, hortik, zenbait instrumentu-jotzaile igaro eta gero, Iruñean sendotu zen gaur egun dituen kide nafarrekin, **Carlos Cía** (bateria) eta **Félix Sola** (teklatua).

Errepertorio askotarikoa dute, bai kantei bai estiloei dagokienez, hala nola: bossanova, jazzik ezagunena, betiko boleroak, funk dantzagarria eta soinu-bandak. Hori dena formatu instrumentalean, jazz-ukitu originalarekin eta teklatuak, baxuak eta bateriak osatutako hirukote gisa. Atzoko eta gaurko musika, edozein motatako entzuleek kontzertu atsegin batez disfruta dezaten. Urte hauetan zehar, taldeak emanaldi asko eman ditu Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo.



7 Ir

Ezagutu Erronkariko Gazta

ERRONKARI

17:00 / 1 ordu

Larra Gaztandegia.

Enpresa parkea. Burgi

Prezioa: 3€

Erreserbak:

T. 948 47 52 56

oit.roncal@navarra.es



uxtaila KULTUR



12 og

Diabulus in Musica

ARGUEDAS

SAN MIGEL PLAZA / 20:00

Musika klasikoaren pasioa metal gordinenarekin nahasten bada, emaitza, dudarik gabe, **Diabulus in Musica**-ren antzeko zerbait izanen da. Talde hori maila nazionaleko garrantzitsuen da bere generoan, eta nazioartean, ezezagunenetako bat; eta 2010. urteaz gero, European barna dabil bere musika zabaltzen. Beren lehenbiziko diskoa mundu osoan argitaratu zen **Metal Blade Records** estatubatuar zigiluaren eskutik.

Gerora, gaur egun rockaren eta metalaren munduan garrantzitsuenetako bat den konpainia batekin sinatu zuten: **Napalm Records** (Austria). Horiekin, beren laugarren diskoa argitaratu berri dute, *Dirge for the Archons* izenekoa, eta, horrekin batera, Europa osoan barna ibili dira bira egiten, ia gelditu gabe.

Haien musikak paraje desberdinetara eramaten du entzulea eta hunkitu egiten du bere opera-pasarte leunekin, eztarri-hots latzekin, koro epikoekin, orkestra-interludioekin eta metalik gogorrenarekin. Apustu moderno eta urratzailea da eta entzulea epel utziko ez duen izugarrizko zuzeneko du.

14 lr

Bisita monasteriora

IRANTZUKO MONASTERIOA

12:00 / 1 ordu

Informazio-gunea

Prezioa: 3€

Erreserbak:

T. 948 52 00 12 / 646 18 52 64

info@tierrasdeiranzu.com



13 or **IDDWAC**

ARBIZU

OLAZTEA TERRAZA / 21:00

IDDWAC 70eko hamarkadaren bukaeran sortu zen Iruñean, orduan maiz entzuten hasia zen sustrai zeltetako folk-musikaren inguruan. Lehenbiziko taldekideen artean aldaketaren bat gertatu eta gero, 80ko hamarkadaren erdialdean bereizi ziren ehun bat kontzertu eman eta gero. Hala ere, bi hamarkada geroago, bandako kideek topo egin eta berriz elkartzea erabaki zuten; etapa berri bat abiatu zuten erreperitorio berrituarekin eta "*Ahora volvemos*" diskoarekin. Hor, hamabi kanta biltzen dira, **IDDWAC**eren estilora folk zelta sortzeko modua zein den erakusten dutenak: gure egiten dugu, sinpletasunaren xarma kendu gabe.

Oraingo honetan, **Juan Batalleren** (flauta eta letoizko txirula) kolaborazio berezia izanen dute.

Kideak: **Fermín Ansó** (biolina), **Víctor Prieto** (gitarra), **Fernando Rey** (mandolina, bodrham, perkusioa), **Vicente Ferrer** (baxua eta perkusioa).
Laguntzen du: **Juan Battaller** (flauta eta whistle).

14 or **Coral Erkudengo Ama** **Abesbatza Altsasukoa**

IRANTZUKO MONASTERIOA

ELIZA / 12:00

Erkudengo Ama abesbatza 1982an sortu zen, Altsasun. Erkuden parajeen dagoen Ama Birjinari eskainitako ermita batetik dator kio izena. **Gabriel Alegria** izan zen lehen zuzendaria. Geroago, **Sara Salazar** eta **Lourdes Macho** aritu ziren, eta, 1997. urteaz geroztik, **Inmaculada Arroyo** aritzen da horretan. 42 pertsonak osatuta dago, eta Nafarroako Gobernuaren hainbat kultura-programaziotan aritu da, baita Euskal Herriko zenbait herritan ere. **Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketako** Abesbatza Gazteen atalean parte hartu zuen, eta trukeak egin izan ditu, besteak beste, Rotako, Montblanceko, Medina de Pomareko, Azkoitiko, Oñatiko, Argentinako abesbatzekin.

2007ko irailean, **Nafarroako Abesbatzen Federazioaren** CDaren —*Gabon Kantak*— lehen kantua grabatu zuen. 2008ko abuztuan, bidaia bat egin zuten Vienara, eta Austriako zenbait herritan eta hiriburuko zenbait agertokitan aritu ziren. Urte hartako azaroan, Nafarroako Abesbatzen Federazioaren ordezkari aritu zen *Euskal Kantak* jaialdian, Amurrión. Abenduaren 5etik 8ra bitarte, Nazioarteko 2. *Biltzar Etno-historiko eta Musikalean* parte hartu zuen, abesbatza gonbidatu gisa, Orosein (Sardinia).

2009ko maiatzean, Nafarroako Gobernuaren *Vianako Printzea* saria **Agustín González Acilu** musikariari emateko ekitaldian hartu zuen parte. Urte hartako azaroan, bestetik, Cudillerora (Asturias) bidaiatu zuen, *Añoranzas de Cudillero* Habaneren eta Itsas Kantuen Nazioarteko Lehiaketan parte hartzera gonbidatu baitzuten.

2011ko abuztuko lehen astean, emanaldi-bira bat egin zuen Meridan eta Setúbalen (Portugal).



19^{og}**Christina
Rosenvige**

SAN ADRIÁN

FRUCTUOSO MUERZA PLAZA / 22:00

Hiru hamarkadako ibilbidearekin, **Christina Rosenvige** esaten ahal du bera dela nerabetasuneko pop-estiloan biziraun duen espainiar abeslari bakarra eta pop independentearen ikono bihurtu dela, desliluraz eta heldutasunez blaitutako egile-musikaren ikonoa.

Madrilgo “mugida”ren ikonoa izan zen; bere bakarkako karrera bukaezina 1991n hasi zuen eta egile-musikan txoko bat egitea lortuz joan zen poliki-poliki. **Rosenvige** bere burua metamorfizatzen du disko batetik bestera; bere izena gero eta handiagoa da eta beraren musika-maila muga ezezagunetaraio hedatu da. Besteak beste, honako artista hauekin aritua da: **Lee Ranaldo**, **Steve Shelley**, **Benjamín Biolay**, **Georgia Hubley**; beren diskoetako batzuetan parte hartu baitute.

2018an, bere 10. lana argitaratu du, *Un hombre rubio*; lan horretan, Christinak sendotasun emozional maskulinoan sartzen da eta zenbait identitate bere egiten ditu.

20^{or}**Gozategi**

ETXARRI ARANATZ

PLAZA / 20:30

2018an gaude jadanik eta **Gozategi** bere kontzertuen gira hasi berri du.

25 urte urrenaren ospakizunak pozgarriak eta alaitsuak izan dira eta egia esan oraindik eskatzen digute pasaden urteko abestiak.

Baina esan bezala, **Gozategi** aurrera begiratzen ari da eta material berria prestatzen, 2018an, taula gainean jotzeko. Hortaz, aurtengo gira, erreperetoriari begira nahasketa bat izango du, 25 urteurrenaren abesti ezaguratzuenak eta beste alde batetik abesti berrien zerrenda.

Oso pozik gaude abesti berrieekin eta gogo handiz ari gara lanean plazan jarduntzeko.

Euskal Herriko plaza dalako gure kulturaren adierazgarri nagusia. Plazan elkartzen delako. Hori lortzeko bidean parte hartu nahi du **Gozategi** musika ta mezuarekin. Adin eta kolore guztiak elkartu nahi ditugu gure musikaren inguruan, eskutik hartu ta kalejira bat dantzatzu.



21 Ir

Boîte à musique **Marco Bellizzi**

LEKUNBERRI

PLAZA / 20:00

Boîte à Musique taldearen musika-proposamena Europan egiten ari den xxi. mendeko jazzaren barruan kokatzen ahal da. Europako jazz bere musika-heldutasunera ailegatzen ari da, edozein mugatetik aske; orain arte inoiz ez bezalako sormen-mugimendu aparta da, non musikariek beren burua nahi duten bezala adierazteko askatasuna baitute.

Honako hau da *Boîte à Musiquer*en funtsa: musikarien arteko sormenerako espazio bat, non bakoitzak bere hizkuntza erabiltzen baitu, konplexurik gabe, loturarik gabe, jatorri desberdinetako berezko aniztasunarekin. Kide bakoitzak besteengandik aparte egina du bere ibilbidearen zati, eta eskarmentu horrek, hain zuzen ere, sustatzen du beren musika-interpretazioa. Proiektuak jazzaren tradizioarekiko errespetu handia nahiz egungo sormen-abangoardiarekikoa uztartzen ditu eta, hala, proposamen zintzo eta dotorea du emaitza gisa.

Marco Bellizzi (tronboia), **Luis Giménez** (gitarra), **Iván San Miguel** (kontrabaxua), **Gonzalo del Val** (bateria).



21 Ir

Bisita gidatua ***Bikain-era... mantentzen den*** ***ohitura***

LEKUNBERRI

19:00 / 1 ordu 30'

Ongi Etorri etxea - Etxarri-Larraun

Prezioa: dohainik

Erreserbak:

T. 672 423 336

quesosbikain@gmail.com





26 og

Bruna Sonora

CORELLA

FORUEN PLAZA / 21:30

Denon memorian dauden melodietatik abiatuta (*La Tarara, El Vito, Anda Jaleo, el Arbolé...*), **Bruna Sonora** taldeak honako hauek dastatzen dituen musika eskaintzen digu: jazza, musika klasikoa, flamenkoa eta sustrai mediterraneoko soinu-usainak, hala nola *klezmer*, bereber musika edo turkiar musika.

Bruna Sonoraren musikaren izaerari herrien eta kulturen arteko lotura-mezu bat dario, jende desberdinaren arteko errespetu- eta bizikidetzatza-mezu bat, elkarren arteko komunikazio- eta aberaste-mezu bat.

Honako sari hauekin aitortu zaio **Bruna Sonorari** bere lanaren kalitatea: Ermuko *Folkez Blai* lehiaketako 1. saria 2016an; *Urdufolk* lehiaketako 1. saria 2017an; *Burgos Raíz y Evolución* lehiaketako 3. saria 2017an; eta zenbait jaialditan ere hartu du parte, hala nola *Getxo Folk* jaialdian, eta oso kritika onak lortu ditu.

Folk baino areago, Bruna Sonorak jazza egiten du, zenbaitetan telefilmikoa (...) eta igandean eman zuten kontzertua 33. Getxo Folk jaialdiko hoberenetako bat izan zen.
(**Oscar Cubillo**. El Correo Vasco. 2017-10-2)

28 Ir

Santa Maria elizara bisita gidatuak

LOS ARCOS

17:00etatik 19:00etara / 20'

Eliza

Prezioa: 2€

Erreserbak:

T. 948 64 00 21

turismo@losarcos.es



27 or

La otra & Las locas del Co.

ESTELLA - LIZARRA

LOS LLANOS KULTURAGUNEKO LORATEGIAK / 21:00

Beharrak aginduta hasi nintzen idazten, orain dela urte batzuk, bakardade-krisialdietako batean. Orduan ohartu nintzen nire burua sendatzeko balio zidala eta, harrezkero, zauriak musikaren bidez garbitzeko ohitura hartu nuen (...).

Horrela aurkeztu zuen bere burua Madrilgo kantautore horrek bere lehen diskoa finantzatzeko *crowdfunding* arrakastatsua ezagutzera eman zuenean, 2014ko bukaeran; *Pa'fuera y pa'dentro* izeneko disko hori modu aktibistan grabatu zuen, baliabide gutxiarekin baina ilusio handiz.

La Otrak letra ironiko eta kritikoen bidez hitz egiten digu, baina letra intimista eta, batez ere, pertsonalak erabiltzen ditu; egile- eta protesta-kantagintzan zegoen hutsune bat bete du, sentikortasun desberdin batetik abiatuta, eta gero eta askotarikoagoa duen publikoak emozioz hartu du.

Bere bigarren diskoa, *Creciendo*, argitaratzear dago, eta hura ere *crowdfunding*aren bidez finantzatua da. Gainera, proiektu horretan, emakumez osatutako talde batek -**Las locas del Co.**- ere hartuko du parte, eta horiekin batera egingen du bira, formatu akustikoaren birarekin modu paraleloan.

28 Ir

Ardanfusión

LOS ARCOS

PLAZA / 21:00

Lau musikarik osatzen dute taldea. Ahotsa (**Montse Zabalza**) eta instrumentu-jotzaileak (**Francisco Herrero, Joseba Loinaz eta Txema Garcés**) aritzen dira taldean, zenbait musika-estilo fusionatu eta berezko bat sortzeko asmoz.

Haiek egindako temak joko dituzte, baita bertsioak ere: **Brel, Leonard Cohen, Mikel Errazkin, Imanol...** Testuek ere badute garrantzia: **Mikel Arregi, Lorca**, japoniar kulturaren aipuak (**Haikuak**).



2^o

Strombers

RIBAFORADA

CABALLEROS TEMPLARIOS KALEA (BARRANCO) / 22:00

Cardona, 1998. Asmo handirik gabeko talde bat sortu zen, ongi pasatzeko *jam session*ak antolatzen zituen. Gauzak ontzen hasi ziren eta beren lehen kantak sortu zituzten.

Cambrils de Muntanya, 2002. Taldeak bere lehen maketa grabatu zuen eta handik atera zen bere lehenbiziko lana: *Fiesta Ilegal*, 1. bol. (Zinetik Records).

2005ean, beren diskoetxearekin kontratu-neurri zorrotzekin lotuta zeudenez, harekin harremana etetea erabaki zuten. **Strombers Records** sortu zuten eta beren bigarren lana argitaratu: *Que Ruli!* (Dabilela!). Disko horrekin eta CDak bi euroan saltzeko estrategiaren bidez, *Que Ruli!* Kataluniako salmenta-zerrendetako goiko postuetara ailegatu zen, hedabideetan ia agertu gabe. Taldeak entzule gazteak eta festazaleak erakartzen ditu; beren publikoa oso fidela da eta, gainera, urtetik urtera, berritu egiten da. 2006an, 51 emanaldi egin zituzten entzule askorekin. 2007an, 71 emanaldi egin zituzten eta beren hiru-garren lana merkaturatu zuten: *Blú*. 2008an, 68 emanaldi. Orduan, taldea egonkortu egin zen eta, hori dela eta, haren zuzenekoak are kementsuago, festazaleago eta osoagoa bihurtu zen.

2009an, *Extraterrestres* lana sortu zuten eta hiru urteko bira egin zuten lan horrekin. Horren ondotik erabaki zuten bolada batez diskoak argitaratzeari uztea, taldearen kantetan eta soinuean kalitate hobea bilatu nahian. 2012an, azkenean, bosgarren diskoa argitaratu zuten, *Jrujenjúnjel*, *Tocant el cel amb la mà* kantaren bideokliparekin batera; horrek, oso denbora laburrean, 100.000 bisitaldi baino gehiago lortu zituen *youtuben*.

2013an, beren azken diskoa grabatu zuten, seigarrena; *10 anys de festa il·legal* izena du eta zuzeneko CD+DVD bikoitza da, non beren ibilbide osoko gairik enblematikoenak berrikusten baitituzte. 2015ean, *Tavernaris* lana atera zuten, ukitu latinoekin.

3^o

Fusioak. Aukeran Dantza Konpainia

ELIZONDO

PLAZA / 20:30

Aukeran Dantza Konpainiak Fusioak

ikuskizuna aurkezten du, eta euskal dantzaren erritmo, soinu eta osagaien eta nazioarteko beste folkloreen arteko fusioa egiten du dantzaren bidez; ikuskizun harrigarri, berritzaile, moderno eta berezi bat.

Ordubeteko ikuskizun bat kalerako eta jende guztiarentzat; kalitate plastiko handia du, lurralde desberdinetako elementuekin, eta, ororen gainetik, ikusleak hunkiarazteko sortu eta pentsatuta dago.

Zuzendaria: **Edu Muruamendiaraz**.



4 Ir

Musikaren koloreak

OTSAGABIA

PLAZA / 22:00

Begiak ixten badituzue musika entzun bitartean, erraza da zure burua koloreetara eramaten uztea. Sentikortasuna ageri-agerian.

Txistuek, eskusoinuak, ahotsak, pianoak, kontrabaxuak eta gitarrak osatutako familia horren kontzertuan, kolore guztietako musika eskaintzen da.

Musika klasikoa, barrokoa, tradizionala, zelta eta fusioa. Txistua eta pianoa; txistua, silbotea eta eskusoinua. Txistua, bateria, kontrabaxua eta ahotsa... Kontzertu horretan, instrumentuen zenbait taldekatze egiten dira, eta harrituta uzten gaituen eskaintza bat lortzen dute. Txistua gainerako instrumentuekin senidetua, baina obra guztien protagonista.

Oso erraza da *Musikaren Koloreez* disfrutatzea.



4 Ir

Bisita gidatua: Irati aireko ikuspegitik. Abodi

OTSAGABIA

10:00 / 3 ordu

Abodiko eski-estazioa, NA-2011 PK7

Bidexka: 1h 30' (Min 10 pax, max 35 pax)

Prezioa: dohainik

Erreserbak:

T. 948 89 06 41 / oit.ochagavia@navarra.es

Bisita gidatua Otsagabiara

18:30 / 1 ordu 30'

Otsagabiko turismo-bulegoa

Prezioa: 1€ helduak, adingabeak dohainik (Max 35 pax)

Erreserbak:

T. 948 89 06 41 / oit.ochagavia@navarra.es





11r

Bisita gidatua: Historia, arte eta espiritualtasuna Monasterioan

LA OLIVAKO MONASTERIOA

17:00 / 45'

Monasterioko atezaindegia

Prezioa: 2€

Erreserbak:

T. 948 72 50 06

biblioteca@monasteriodelaoliva.org

9^{og}

Random Thinking

VIANA

SAN PEDROKO HONDAKINAK / 21:00

Aurora eta Ángel Pérez anai-arrebek **Random Thinking** proiektu artistikoa osatzen dute.

Beren proposamen musikal bikainak folka, bluesa eta smooth jazz-a ditu sustraletan eta kritikaren eta publikoaren babesa jaso du aho batez. Urteko Artista Hoberenen eta Disko Hoberenen artean hautatu dituzte; Antzerkien Sareak ere hautatu ditu eta herrialde osoko hedabideek gomendatzen dituzte. Kontzertuetan eta jaialdietan Espainia osoan barna ibili eta gero, beren bigarren diskoa aurkeztu dute: *Right here and now* (Hemen eta orain), **Caco Refojo** soinu-ingenariak grabatua (hiru Grammy sariren irabazlea).

Ñabardurez eta sonoritate sakonez betetako ikuskizun gozo horrek honako premisa hauetatik abiatzen da: oraina, gurea den gauza bakarra; gure beldurrak gaingitzea, eta askatasuna. Arimari hitz egiten dioten melodiak, ahotsaren eta gitarraren eskutik; horietatik dira bi anai-arreba musikari eta konposatzaile horien identitate-markak. Beren proposamena bikaina eta ahaztezina da hainbat arrazoiengatik: beren soinu organiko eta zuzenarengatik, beren konposizioen adierazkortasunarengatik, beren instrumentazio zainduarengatik eta helarazten duten energiarengatik.



10 or

Ramón García Septet **Proyecto Luces del Norte**

MARCILLA

GAZTELUA / 21:00

Luces del Norte proiektuak **Ramón García Lara** piano-jotzaile nafarraren lehen lanari ematen dio izena. Proiektu horrek musikari horren askotariko interesak agerian jarri nahi ditu, zazpikote formatuko talde batean. Jazzeko *big banden* oihartzuna nabaria da musika horretan; izan ere, besteak beste, honako hauen eraginak erakusten ditu lotsarik gabe: **Bill Holman, Oliver Nelson, Wayne Shorter, Don Menza** eta **Dave Slonaker**. Proiektua egia bihurtzeko, Nafarroako jazzaren musikari nabarmenetako batzuek hartu dute parte.

Kideak: **Ramón García Olcoz** (tronpeta / fliskornoa), **Iñaki Rodríguez** (saxo altua), **Oskar Lakunza** (saxo tenorra), **Miguel Moisés** (tronboia), **Luisa Brito** (kontrabaxua), **Daniel Lizarraga** (bateria), **Ramón García Lara** (pianoa / konposizioa eta moldaketak).

11 lr

Tafallako Tubala **Uxo a abesbatza**

LA OLIVAKO MONASTERIOA

ELIZA / 19:00

Tubala Uxo a Abesbatza, Carlos Etxeberria Alonso musikari eta konposatzaile tafallarrak sortu zuen 1985ean. 2005. urteaz gero, **Laura Calvo Zalacainek** gidatzen du taldea.

Bere musika-ibilbide guztian zehar, hainbat kontzertu eman ditu, beste beste, Salamancan, Leonen, Araban, Gipuzkoan, Kantabrian, Zaragozan; Europan barna ere ibili da: Belgika, Frantzia, Portugal, Txekiar Errepublika, Hungaria eta Austria.

Talde hori musikazaleez osatuta dago eta ohiko elementua izaten da Nafarroako musika-eskaintzan, Foru Komunitatearen programazio kulturean parte hartzen baitu normalean.

2016ko abenduan, bere lehen CDa kaleratu zuen, *Música en Navidad*, eta publikoak oso harrera ona egin zion.

Honako helburu nagusi hauek ditu: taldekideei musika- eta ahots-prestakuntza ematea eta abesbatza-musika hedatzea lana eta dibertsioa uztartuz.



16 og

**Rock
Classical Trio**

IZABA

ANFITEATROA / 20:30

Konbinatu originalak gustatzen zaizkizu? Eta *Thin Lizzy*ko Manhattan bat hartzen badugu Bach tanta batzuekin? Edo, beharbada, hobe *Queen-Vivaldi* Margarita bat? Zaporen eta testuren arteko nahasketak gustatzen bazaizkizu, ezin duzu galdu *Classics on the rocks* kontzertua.

Rock Classical Triok inoizko rock-kantarik ho-berenetako batzuk joko ditu (*Whiskey in the jar, Still loving you, Dust in the wind...*), eta obra kla-siko ospetsu batzuen zatiekin fusioatuko ditu, hala nola *Beltxargaren aintzirarekin*, Bachen *Biolontxelorako 1. Preludioarekin* eta Mozarten *Gaueko serenata txikiarekin*. Kontzertu horretaz, musika klasikoaren zaleek, melomanoek eta betiko rockzaleek gozatuko dute, baita tarte atsegin eta dibertigarria pasatu eta, aldi berean, ikasi nahi dutenek ere. Eta bukaera erogarria du!

Joaquín Taboada (musika-zuzendaritza, pia-noa, eskusoinua eta ahotsa). Musika irakaslea da, baita konpositorea eta piano-jotzailea ere, eta kontzertu horretarako espresuki sortu ditu musika-moldaketak. Zenbait CD argitaratu ditu bere musikarekin eta abesbatza- eta ganbera-lan eta obra sinfoniko asko estreinatu ditu.

Igor Saenz (biolontxelo, baxua eta mandoli-na). Prestakuntza klasikoa izan arren, musikari polifazetiko horrek rock-, pop- eta jazz-taldeetan baita antzinako musikako taldeetan ere hartu du parte, orain dela hamarkada bat baino gehiago hasi zuen ibilbidean. Interpretazio musikala irakaskuntzarekin eta musika-ikerikuntzarekin konbinatzen du.

Iker Bengoetxea Goya (ahotsa, gitarra, perkusioa). Moldakortasun eta umore handiko aktore eta musikaria da, eta, haren bizitzan, bilintzi-balantza ibiltzen da soinu-estudioen eta agertokiaren artean. Bikoizketa-aktorea eta abeslaria da lanbidez. Opera-, zarzuela- eta antzerki-ekoizpen askotan hartu du parte.

17 or

**Pachawa
Sound**

ZANGOZA

ARCADAS PLAZA / 23:00

Gaurko musikaren munduan hobekien gordetako sekretuetako bat, ezagutzera emateko prest. Proiektu suntsitzaile bat, agertokitik bertatik zuzeneko ekoizpenetako bi izen handiek eraikia: **Miguel Zamarripa Flautek** eta **Gambeat**, Manu Chaoren baxu-jotzailea eta talde handien ekoizlea (hala nola **La Pegatina** edo **Che Sudaka**). **Pachawa Sound** kontuan hartzeko moduko 2017ko izenetako bat da. Zuzeneko da talde horren armarik hoherena eta, aurtan, disko baten bidez aurkeztu du bere burua.

Pachawa Soundek erreperitorio sendoa du bere kontzertuetan, mundu osoko erritmoen fusio oso dantzagarri bat abiapuntutzat hartuta. Ikuskizun aparta eta oso ahaltsua da; ikusleei hasiera-hasieratik zirrara sorrarazteko pentsatuta. Herriko festetan, aretoetan eta jaialdietan 50 kontzertutik gora eman izanak taldearen zuzenekoaren bikaintasunaren lekukotasuna ematen du. Eta urte bakarra eramaten badu ere, Kataluniatik kanpoko programatzaileen arreta erakarri du, eta Euskadiko eta Frantziako agertoki garrantzitsuetan jo du.

Besteak beste, honako hauek erakusten dute **Pachawa Sounden** nazioarteko eskarmentua: *Saute-Mouton jaialdia*, Belfort-eko *FIMU*, Zumarragako txosnak, Baionako festak edo *Bigorrako Big Bag Festival* de Banhêras. Baina Kataluniako festa handietako karteletan ere maiz agertu da.

18 lr
Ysi
Kalima

FITERO

LAS MALVAS PLAZA / 21:00

Kalima, abeslari polifazetiko eta moldakorra da eta 948 Merkatuan (Nafarroako lehenbiziko Arteen Azoka) hartu zuen parte ezusteko artista gisa; han aurkeztu zuen bere lehen diskoa, *Miscelánea*. **Edith Piaf Hirukotearen** ahotsa ere bada. Ysi Kalima haizea da: besarkatzen eta emozioz betetzen gaituen ahots bat. Goratu egiten gaitu eta ametsen munduetara garraiatu. **Ysi Kalima** lurra da: bere ahotsarekin pizten gaituen erritmoa eta indarra.

...honako gaitasun hauek ditu: aditzen duena emozio-dimentsio batera eramaten du, alegia, noizbait ere musikarekiko pasioa sentitu duten horien bizitzan barnako bidaia batera; ...emozio-uholde bat transmititzeko gai da bere ahots goxo eta indarrez beteari esker; bere arima zahar eta mestizoarekin konektatzen duen estilo pertsonal eta besterenezin baten oinordekoa da. Ezinezkoa da bizitasun-uholde horri ihes egitea. Haren argiak energia igortzen du eta haren ahotsa emozioen mailakatzeko bat eragiteko gai den iman bat da.

Zuzeneko oso zaindua denez eta erreperatorioa kontu handiz hautatua duenez, publikoa harrapatu egiten du eta esperientzia musikal eta emozional bizi batean murgilarazten du.

Ysi Kalimak beren lehen diskoa aurkeztuko du, *Miscelánea*; hor, hainbat musika-munduren barnako bidaia musikal mestizo bat aurkezten digu, hala nola: fadoa, jazz, bluesa, tangoa... Estatuko musikaria entzutetsuekin batera agertuko da: **Carlos Torrijano** (teklatuak), **Paco Escudero** (perkusioa), **Juan Guerra** (baxua) eta **Javier López Jaso** (eskusoinua), artista gonbidatu gisa. **Ysi Kalima** musika da, aniztasuna, sormena, fusioa, exotismoa, oroitzapena, erritmoa, dotorezia, sentsualtasuna eta pasioa agertokiaren gainean.



18 lr
Bisita gidatua
Fiteroko monasteriora

FITERO

18:00 / 30-40'
Monasterioko elizako atea
Prezioa: 2€

Erreserbak:

T. 948 77 66 00 / turismo@fitero.es

abuxtua KULTUR



23 og
Mara

ZUGARRAMURDI

SORGINEN LEIZEA / 18:00

Leizera sartzeko prezioa: 4,50€

Mara musika portugaldarraren azken ezustekoetako bat da. Lehengo urtean, Espainiako entzuleria konkistatu zuen, zenbait jaialditan (Cáceresko *Womad* jaialdia edo Getxo *Folk jaialdia*) eta hiritan edo probintzian (Valentzia, Burgos, Cuenca, Ciudad Real edo Errioxa), eta, orain lehen aldiz aurkeztuko du Nafarroan *Folha do rosto* disko txalotua.

Mara ez da fado hutsa, ez da Alentejoko kantagintza hutsa, ezta folk hutsa ere. Musika portugaldarra da, baina flamenkoarekin eta jazzarekin ere egiten ditu maite-jolasak; *saudadez* eta sentimenduz betetako leku eta istorioetara eramaten gaituen ahots bikaina.

25 Ir

***Bisita gidatua
eta Leyreko likorea eta
txantxigorri dastatzea***

LEIREKO MONASTERIOA

18:00 /45' bisita; 30' dastatzea
Monasterioko harrera-zentroa
Prezioa: 3,70€ bisita; 2,70€ dastatzea

Erreserbak:

T. 948 88 41 50

visitas@monasteriodeleyre.com



24 or

Hego Haizeak

ORBAIZETA

PILOTALEKUA / 20:00

Txistua orkestretan primeran egokitzen den instrumentu bat izanda, **Hego Haizeak Txistu Bandak** ildo tradizionalena hautatu du. Banda tradizionalen gisako talde bat. Lehenbiziko txistua, bigarren txistua, silbotea eta atabala. Horiei esker, haren errepertorioa txistuaren ildo tradizionalena eskaini eta erakusten ahal du. Baina ez dio uko egiten musika garaikideari.

Hego Haizeak Txistu Bandako kideen gaitasunak, mailak eta prestakuntzak aukera ematen diete ia edozein obra jotzeko.

Aitor Urquiza Cirauqui. Txistuko gradu profesionaleko eta goi-mailako titulua, Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan. Konposizioko goi-mailako titulua.

Ainara Martínez Ramírez. Gradu profesionaleko titulua, Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioan.

Asier Agirre Aranguren. Txistuko goi-mailako graduko titulua, Nafarroako goi-kontserbatorioan. Hiru urte perkusioaren alorrean, gradu profesionalean.

Xabier Olazabal Etxegia. Eskusoinuko gradu profesionala Iruñean eta Zaragozan. Txistuko goi-mailako graduko titulua, Nafarroako goi-kontserbatorioan.

Hego Haizeak Txistu Bandak errepertorio zabala eta ezaguna aukeratzen du. Jatorrizko obra batzuk taldekideek berek transkribatuak dira. Eta behar-beharrezkoa diren egileak.

Pablo Sorozábal, Hilario Olazarán, González Bastida, Jose Ignazio Ansorena, Pablo Sarasate, Luis Aranburu eta abar luze bat.

25 Ir

Coro In Tempore Abesbaxta

LEIREKO MONASTERIOA

ELIZA / 19:45

Coro In Tempore Abesbatza Iruñeko Coral San Jose Abesbatzak 2016an hartu zuen izen berria da. Abesbatza hori 1955ean sortu zen eta, 2001. urteaz gero, **Carlos Etxeberria Alonso** musikari, konposatzaile eta irakasleak zuzentzen du.

Abesbatzak curriculum zabala du, Iruñean, Nafarroan, Estatuan barna eta Frantziako hegoaldean emandako kontzertuez betea. Lehengo urtarilaren 15ean, New Yorkeko *Carnegie Hall*-en abestu zuen, DCINYek gonbidatua (Distinguished Concerts International New York), eta **Karl Jenkins**-en *Requiem* lana interpretatu zuen munduko beste abesbatza batzuekin batera. Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak antolatutako zikloetan parte hartu ohi du.

Azken urteotan, nazioartean ospetsuak diren konposatzaile garaikideek abesbatza eta orkestretarako idatzitako abesbatza-musika garaikidean espezializatu da.

30 eg *Tximeleta*

MENDIGORRIA

PLAZA / 20:30

Tximeleta taldea gara, 2000. urtean sortutako plaza taldea. Ordutik hainbat txokotan ibili izan gara, herriz herri, plazaz plaza.

Aurretik hainbat taldetan aritutako musikariak gara. Bateria, baxua, gitarra eta teklatuaz gain, trikitixa, panderoa edo eta gaita eta txirula bezalako instrumentu tradizionalak ere tartekatzen ditugularik. Errepertorio zabala eta anitza, zahar eta gazte asetzeko adina, euskal doinueta oinarritutakoa (%75 euskaraz). Mejikanak, kalejirak, fandangoak edo eta folk doinuak trikitixa eta kitar elektrikoaz uztartuz; pop kankak, rock talde nagusien bertsioak euskaraz eta erdaraz...

31 or *Suakai on the Rocks*

ARTAXOA

QUINTA PARKEA / 20:00

Suakai on the Rocks talde horren kontzerturik intimoena da, non rockaren kanta arrakastatsuenak, balada sakonenak eta bertsiorik pertsonalenak entzun ahal izanen baitira. Azken urteotako abesti ezagun eta arrakastatsuenak inoiz ikusitako talde baten eskutik; amesten eta oroitzen lagunduko digu. Abeslariaren ahots izugarriaz gozatu ahal izanen dugu, biolinaren eta txeloaren xuxurlaz, gitarraren harmoniaz... Hori dena bateriak eta baxuak sustengatuta. Baina... Zer aditu behar dugu?

Suakai on the Rocks honako hauen zaleentzako kontzertu perfektua da: nazioarteko rocka, soula eta jazz. Askotariko estiloak biltzen ditu, **Sting** edo **U2**, baita **Alicia Keys** edo **Zenet** ere. Ikuskizunerako prestatu diren bertsioak oso bitxiak eta bereziak dira; kontuan hartuta horiek jotzen dituen aparteko taldea, unerik sutsuenak, baita goxoenak ere bizi ahal izanen dira kontzertu berean. **Selva Barónen** ahotsa kontzertuaren indarguneetako bat da, beti biolinak, biolontxeloak, gitarra akustikoak, baxu elektrikoak eta bateriak lagunduta.



abuxtua iraila KULTUR



1 Ir

Smoking Stones **The Rolling Stones** **oroimenean**

ALTSASU

FORUEN PLAZA / 23:00

Mundu osoko oroimen-bandarik hoberenetakotzat jotzen da eta arrakastaz betetako 12 urteren ondotik, bere ibilbideko unerik hoberenean dago.

Smoking Stonesek eskaintzen duen ikuskizunean, bermatuta dago arrakasta; **The Rolling Stones**-en abesti arrakastatsuenak jotzen dituzte eta horietaz gozatu ahal izan duten guztiak harrituta utzi dituzte.

Ez galdu **Smoking Stones**ekin gozatzeko aukera. Bere ospeak gero eta leku garrantzitsuagoa eman dio musikaren arlo guztietan. Jarraitzaile sutsuak ditu, eta, askoren ustez, **Rolling Stones**-en oroimen-talderik hoberenetako bat da mundu osoan.

40 urteko ibilbide musikal bat ordubete luzeko ikuskizun batean laburbilduz, agerian gelditzen da **Smoking Stones**en talentu ukaezina; agertokiaren gainean, rock hutsa darie, eta, erabateko errespetutik abiatuta, beren idoloen ibilbideari emandako omenaldi sutsua bihurtzen dute beren ikuskizuna.



1 Ir

Paseoa zaldiz **Errotain Zalditegiarekin**

ALTSASU

11:00etatik 19:00etara /
Ordu bat edo bi aukeran
Errotain. Urdiaingo errota-etxea
Prezioa: 20€ ordubete ; 36€ bi ordu

Erreserbak:

T. 687 42 48 39 / 626 74 91 49
errotain@gmail.com

iraila KULTUR



8 Ir **Ibilbidea Tuteran, bisita gidatua**

TUTERA

Bisita gidatua 11:00 eta 18:00 / 1 ordu 30'

Monreal dorrea

Prezioa: 3€

Erreserbak:

T. 948 41 71 00 / turismo@tudela.es

Bisita gidatua Maria Ama Birginiaren katedralera

TUTERA

10:00 / 1 ordu

Tuterako Museoa. Dekano-etxea

Prezioa: 4€

Erreserbak:

T. 948 40 21 61 / info@museodetudela.com

*Aurrez eman behar da izena ezinbestez
Min 8 pax.*

6 og

Mielotxin

AGOITZ

KULTURA ETXEA / 21:00

Nafarroako **Mielotxin** folk-taldeak bere lan eta ikuskizun berria aurkezten du: *Alan Lomax in memoriam*. Musika herrikoia bildu eta XXI. mendera ekartzeko asmoz, 1952ko Eguberrietan bisita egin zigun etnomusikologo amerikarraren lanari aitorza egin nahi dio: Elizondo, Erratzu, Uitzu, Lesaka... Herriz herri eta baserriz baserri, Mielotxinek inspirazio-iturri baliatu dituen melodia asko bildu zituen.

Errepertorio berri horretan, aurreko lanetan bezala, gure folkloreaken aberastasuna erakusten digu **Mielotxinek**, iparraldetik hegoaldera. Euskara gaztelaniarekin batera, jota mutil-dantzarekin batera, erromantzea bertsoarekin batera.

Zuzeneko oso zaindua dute, eta proiektzioak, dantza eta musika nahasten dira, **Lauarin** dantza taldeko kideekin eta **Hutsunen** txalapartarekin batera.

Adin guztietarako ikuskizuna da, non publikoa zenbaitetan taldeko bosgarren kide bihurtzen baita.



7 or

Kepa Junkera & Sorginak

LEITZA

PLAZA / 20:00

Kepa Junkera eta Sorginak emakume-taldea, tradizioa eta sormena elkartuz.

*Maletak honako hauen arteko topaketa da: antzinako ohiturak, munduko erritmoetan oinarrituz sortutako musikak eta publikoaren energia. Esperientzia musikal eta bisual horretan, **Kepa Junkera Sorginak** taldeko emakumeekin batera aritzen da; emakume gazte horiek abestu, dantzatu eta mota guztietako perkusioak jotzen dituzte.*

*Euskaldun unibertsala eta ezinbestekoa da **Kepa Junkera**; ororen gainetik, artista handi horrek iraultza ekarri du euskal musikara, hari bizitza berri emateko eta egungo eta garaikide bihurtzeko. Bere talentuari esker, inoiz imajinatuko ez genituen lekuetaraino eraman du bere musika eta, harekin batera, gure kultura. 2004an, *Grammy* bat eskuratu zuen Bilboko Arriaga Antzokian zuzenean grabatutako lan bati esker.*

José Saramago Literaturako Nobel saridunak *Etxearen aitzinsolasean* esan zuenez: *Bada herri musikari bat barruan munduko herri guztiak ordezkatuak dituena, denon etxea ballitz bezala. Horren guztiaren arkitekto eta igeltseroak Kepa du izena.*

Kepa Junkera: Trikitixa, Perkusioak.

Sorginak: Amets Ormaetxea, Eneritz Aulestia, Alaitz Escudero, Irati Gutierrez, Garazi Otaegui, Leire Etxezarreta, Irantzu Garamendi, Maddi Alberdi, Ane Gonzalez, Olatz Alberdi, Mirea Ibabe (Perkusioak, ahotsa eta dantza).

8 or

The Clams

TUTERA

ALFONSO I EL BATALLADOR PLAZA / 20:30

The Clams Espainian dagoen *rhythm & soul*-eko emakume-talde bakarrenetako bat da.

Talde hau osatzen duten zazpi emakumeek benetako musika beltzaren eztanda bat eskaintzen dute, souletik hasi eta orkestra-blueseraino, jazzari eta swingari egindako keinu batzuk alde batera utzi gabe.

Haren kontzertuetara jende andana joaten da; zaleak baino areago, jarraitzaile sutsu eta leialak dira eta musika beltzaren inguruko kultu dibertigarri, ausart eta lotsagabeaz erabat disfrutatzen joaten dira haren zuzenektara.

Marina ahots nagusia da; **Silvia**, baxu-jotzailea; **Maylin**, bateria-jotzailea; **Laura**, teklatu-jotzailea; **Almu**, tronpeta-jotzailea, eta **Katiak** saxo tenorra jotzen du. Espainiako soul talde ez-ohiko hori osatzen duten zazpi musikariek, beren lehenbiziko EParekin arrakasta handiak lortu eta gero, abentura berri bati ekin diote bere konposatutako proiektuarekin, gaztelaniaz abestuz oraingoan.

Javier Ciga Echandi

IRUÑA

1877-1960

Honelaxe defini dezakegu Ciga: pintura barearen maisua, hanpuruskeria eta nabarmenkeriarik gabeko pinturaren maisua. Ihes egiten du artifizialkeriatik, konplikazio errazetik. Benetakotasunaren pintura da, itxurakeriatik harago doana, barnealde sakoneraino. Izateak osatzen eta blaitzen du Cigaren lana, izaera existentzialista, errealista eta metafisikoa emanda. Ezer baino gehiago, **esentzien eta egien pintorea izan zen Ciga, bere garaiko arima eta gizartearen interpretatzailea.**





J. CIGA

***Figurazioa
eta esentzia***

J. CIGA

**Figurazioa
eta esentzia**

uztailak 20 abuztuak 20

J. CIGA

**Figurazioa
eta esentzia****BERTIZKO
JAUREGIA**

Erakusketaren ordutegia:
Egunero zabalik, 10:30etik 13:30era
eta 16:00etatik 19:00etara.

Prezioa: erakusketa doakoa da, baina
ordaindu egin behar da lorategi
historikora sartzeko.

www.fundacionciga.com

Arbasoak baztandarrak ziren, amaren partetik, eta ibarrari lotuko zaio bai arlo pertsonalean, bai arlo piktorikoan Cigaren lanak erromantizismoan eta errealismoan ditu sustraiak; lehenengotik, herriarekiko eta hango jendearekiko maitasuna hartuko du, bere lanaren inspirazio-iturri bi-biak, eta bigarrenetik, errealtatea islatzeko eta perfektiora iristeko obsesioa, akademizismotik harago. Zorroztasun teknikoa eta ongi ikasitako ofizioa ditu oinarri bere pinturak. Hortik, Pinturara (maiuskulaz) jotzen du: orekatua, barea, nabarmenkeriarik gabea, non ia genero eta teknika guztiak baliatu baitzituen maisutasun handi-handiz. Parisko egonalditik, erabilera berriak ekarri zituen Cigak, nahiz eta bere ideal estetikora lerrotu zen nahita, hots, perfektio errealistara zein pinturaren balio handietara.

Ezer baino gehiago, **esentzien eta egien** pintorea izan zen Ciga, bere garaiko arima eta gizartearen interpretatzailea.

Lau ardatz tematikoren inguruan antolatuta da erakusketa.

Errealismo soziala

Madrilgo aldia
1909-1911

Erretratua**Paisaia****Pintura etnografiko eta
alegoriko-sinbolikoa**